

noaua



NOAUA!Fest, iruditan

**Azaroaren 1ean,
Artisau Azoka**



**Azaroaren 6an,
herri-antzerkia Kalezarren
“Auzoa berpiztea eta auzotarren arteko
harremanak indartzea dugu helburu”**

**6. or.
KAFFE GARAIA
Julen Arteaga:
“Kabiene gabe
Origami Arkitektura Taldea
ez zen existituko”**



*Santu guztien egunean,
aukera zabala!*

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



FINKA ADMINISTRATZAILEA


AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



**FUNERARIA
GONZALEZ
EHORTZETXEA**

munalurra 8, USURBIL

*EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK*

**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

www.funerariagonzalez.es



**BIHURRI
LUDOTEKA
USURBIL**

Kuota bazkide berrientzat:

30 euro

telefonoa: 670218335

Laster irekiko dugu!

Albisteak iruditan

Gipuzkoako 7. Bakailaozko Pintxo Txapelketan sarituak

Bakailaoari dagokion balioa eman eta jaki honen kontsumoa sustatzea helburu duen txapelketan Gipuzkoako 52 taberna edota jatetxeek parte hartu dute; tartean, Usurbilgo Bordatxo edaritegiak eta Artzabal jatetxeak. Biak saritu dituzte. Alor honetako adituez osaturiko epaimahaiak produktua bera, estetika, originaltasuna, teknika, edota balore gastronomiko eta nutrizionalak hartu ohi ditu kontuan.

Erakusketa berria Artzabalen

“Akrilikoz margoturiko gazezurak” ikusgai jarri dituzte Gure Pakea elkarteko egoitzako Artzabal jatetxean, Nerea Linazasororen “Art-aldea” izeneko bilduma. “Naturak ematen dizkigun objektuei beste aukera bat ematea da nire asmoa. Gehienetan gazezur hauek mendian aur-



Artzabal jatetxeak eta Bordatxo edaritegiak sari bana jaso zuten.



kitutakoak dira eta atzealdean dituzten gureak berriz mendian eta itsasertzean

jasotakoak”. Abendu hasierara arte gutxienez ikusgai izango dituzue.

Laburrean

5 kasu eta eremu horira bueltan da Usurbilgo herria

5 kasu berri detektatu ditu Osasun Sailak Usurbilen iragan aste osoan. Eremu berdetik horira igaro da udalerrri hau. 100.000 biztanleko 14 eguneko 79'26ko intzidentzia du koronabirusak gurean.

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina

Arrisku-taldeetan direnentzat abian da. Azaroaren 15etik aurrera edonorentzat. 70 urtetik gorakoek Covid19aren aurkako 3. dosia ere hartu ahalko dute. Hitzordua anbulatorioan eska daiteke.

Asteburu honetan, ordu aldaketa

Negu garaira egokitu beharko ditugu erlojuak asteburuan. Igande goizaldean hain zuzen, urriaren 31n. Larunbatetik iganderako goizalde horretan, 3:00etan 2:00ak izango dira.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaia.eus ||| www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Ugaitz Agirre

Pospolo bat aski izan da udaletxe osoak behetik gora su hartzeko. Ez da errefusetarako ez den beste ezer geratu. Bitartean, Amaiari kasuak ihes egiten diola dirudi, amaierara ailegatzan den orduko ihes egiten baitio ditxosozko puntuak. Gainera, herri demonio honetan denari su emateko jarrera patologikoa dago eta hori ez da homizidio-ikerketak baterako inondik inora lagungarria. Udal dekretu batez debekatu beharko lukete metxero eta pospoloen komertzializazioa. Baina udalak su hartu du.

Amaia Etxebeste atzema-teak bakarrik kezkatzen du dagoeneko, eta beste eraikinen batek su hartzen badu, albo kalteen zerrendara gehituko den enegarrena izango da. Gerta daitekeen okerrenera berak ere hasierako biktima bezala bukatzea litzateke, eta bere bizitzari estimu neurtua badio ere, ez dio axola demonio zerri hori harrapatzeko balio badu. Iraganeko trapu zikinengatik herri oso bat krimen baten konplize egin liteke, galdetzen zion kuxinari loak bere erresumara eramaten ez zuela ikusita.

Horregatik atepetik gonbidapena jaso zuenean esango ez dudana helbide batean hitzordua eginda, bihotza ohi

Etxebestetarrak III



“Hain zikinak al dira ba etxebestetarren trapuak? Beste edozein herritarrenak bezainbat izango dira”, Amaia Etxebestek.

AMAIA INSPEKTOREA

“Krimen guztiak argitzeko eginkizuna hartu nuen inspektore egin nintzenean”

baino azkarrago hasi zitzaion taupaka. Beharbada, aurpegia urratu zien neska hark ere emozio bera sentituko zuen misterioa argitzetik hain gertu izanik.

Erdi ilunpetan, argizari argiak beltza urratzen duen gela hartan, edateko likoreak eskaini dizkio maiordomoak. Amaiak denak ukatu ditu hara ez dela zurrutera joan argudiatuz, baizik eta Usurbilgo misterioen eta trapu zaharren atzean dagoen Etxebeste demonioari esku-burdinak ipintzera. Desesperazioak egoerak idealizatzen eraman du eta benetan inguratzen duen arriskuaz ez da ohartu ere egiten.

“Zergatik nahi duzu inori

axola ez zaion krimena argitu?”, galdegin dio mafiosoak. Tonua barea izanda ere, hitzen bortizkeriak sekulako barne-dardara eragin dio Amaiari. Halere, adore partikula oro bildu du bere zelula bakoitzetik eta erantzun dio:

“Krimen guztiak argitzeko eginkizuna hartu nuelako inspektore egin nintzenean”.

Emaztearen konbentzimenduak gauzak ezkutatzea alferrik zela ohartuta, etxebestetarrek ezkutatzen zuten hari buruz hizketan hasi da Etxebeste jauna. Txanponak beti egon ohi dira likidoz bustiak. Agian bere sortze prozesuan likido izatearen nostalgiaz. Baina izerdiak ez badu bustitzen, odolaren gorriak busti ohi ditu. Eta guk, hain harro begiratzen ditugunean 47 metroz zerurantz altxatzen diren harri blokeak eta haien edergailuak, hori dena ahaztu egiten dugu. Normala da, loriaren argia itsuga-

ria izan ohi da, hain itsugarria, ezen argitasun horrek itzal eta iluntasun guztiak ikusmiratik desagertzen dituen.

“Hain zikinak al dira ba etxebestetarren trapuak? Beste edozein herritarrenak bezainbat izango dira”, Amaiak.

“Herri bakoitzak bere herroiak eraiki bezain garbi mantendu nahi izaten ditu”.

“Garaiak joan eta etortzen dira. Heroiak ez dira betirako”.

Nork hil nahi ditu, baina, heroi zaharrak? Nor da Nietzsche bezain ausarta (edo zoroa) haien heriotza aldarrikatzeko? Ezer egitea hobe da, gauzak isilik utzi, jendea-ri ahaztuko zaio pixkanaka beste mila buruhausterekin bonbardatu ostean. “Hori da estrategiarik hobena. Orain artean funtzionatu du neska hark behar ez zuen tokian muturra sartu arte. Eta bere atzetik zu Ezpeldoi inspektorea. Esadazu, zer egin behar ote dugu zurekin?”.

Amaiak bazekien gela hartan sartzen bazen, aukerak zituela hankak aurretik ateratzeko. Etxebestek, ordea, berean jarrai dezala esan dio. Albokoak, urduri, ea zertan dabilen galdetu badio ere, honek aipatu dio: “Ikus dezagun zenbat axola zaion munduari hau jakitea”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

Antxeta

TABERNA

egunero irekitzen dugu!

·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..

JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Migrazioaren bidaiak latzaz, Amets Arzallusekin

Gaurkotasun handiko gaitza ekarri zuen Sutegi udal liburutegiak, urriaren 20an kultur-etxeko auditorioko oholta gainera; Europarako bidean muturreko baldintzetan migranteek egin behar duten bidaiak latz, amaigabe, oztopotsua, kasu batean baino gehiagotan, helmugara bidean bizia galtzeraino eramatzen dituen bidaiak.



Urriaren 20an, migrazioa izan zuten hizpide "Miñan" liburuaren aurkezpenean.

Migrazioa izan zuten hizpide "Miñan" liburuaren aurkezpenean. Bere egile Amets Arzallus gonbidatu zuten udal liburutegikoek ekitaldira. Hendaia-rraren sortze lanaren arrakasta itzela azpimarratu zuen Bakartxo Iguaran udal liburutegiko langileak. Horren erakusle, "urteetan libururik hartu ez duen zenbat jendek "Miñan" irakurri duen gustura, interes handiz". Bere iritziz, "sufirimendua eta gozamena" eragiten duen li-

AMETS ARZALLUS
"Gure etxepean oinez pasatzen ikusten genituen denetariko migranteak. Tartean, oso jende gaztea"

burua da "Miñan".

Irungo Renfeko geltokian ezagutu zuten elkar

Europa aldera egindako Ibrahimaren bidearen kontakizuna biltzen du. Arzallusek

beregana nola hurbildu zen azaldu zuen Sutegin. 2018an sortutako Irungo Harrera Sarea tarteko izan zen. Udalerrri horretara egunero heltzen diren migrantei orientazioa, babesa, laguntza eskaintzen die bolondres taldea da.

Hurbiletik, etxetik bizi du errealitate hau Amets Arzallusek. "Gure etxepean oinez pasatzen ikusten genituen", denetariko migranteak. Tartean, "oso jende gaztea, 18

urtez azpiko haurrak, baita amak haur txikiak ere", Sutegin zioenez. Denak muturreko baldintzetan, "gure herria zeharkatzen".

"Miñan" liburuiko protagonista Renfeko tren geltokian ezagutu zuen Amets Arzallusekin hiru urte. Ordutik "harreman nahiko hurbila eta sakona egiten joan nintzen". Denborarekin, ikusi zuen bazuela "edonork entzutea merezi zuen istorio bat".

Udazkeneko zikloa, bete-betean
 Azarora luzatu du Usurbilgo Udalak "Udazkena Liburutegian" zikloa. Datorren saioa, azaroaren 3an, arratsaldeko 19:00etan Sutegin; Ibon Martinekin bere eleberriez solasaldia. Sarrera doakoa izango da. Antolakuntzaren pare bat ohar; elebrietan bideratuko da hitzordua. 6 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute.

Ika-mika

Herri ikuspegiz aritzea, gure konpromisoa

Aurten ere, iritsi zaigu herriko aurrekontuak lantzeko unea eta Euskal Herria Bildutik orain arteko norabide berdinean jarraitzen dugu lanean: Usurbil bizigarri, osasuntsu eta justuago bat erakitzen. Orain dela aste batzuk, lehen pausoak eman genituen, 2022 urterako Ordenantza Fiskalak onartuta. Herritar zaurgarriengan (pentsiodunak, gazteak, etorkinak...) jarri genuen begirada beste behin, eta inoiz ez bezalako apustua egin genuen, hobariak jasotzeko aukera nabarmen zabalduek. Gainera, orain arte horretarako aukerarik ez zuten hainbat zerbitzuetan (haur eskola, Udajolas...), hobariak jasotzeko bidea ere zabalduek. Hori guztia aberastasunaren birbanaketa printzipioak kontuan hartuz, hau da, gehiago duenak gehiago jarriaz.

Herritarrentzako onura garbia beraz, eta beste aurrerapauso bat jendarte justu eta inklusiboagoa lortzeko bidean. Usurbilgo Udalean parte hartzen duten beste bi alderdiek, hartutako erabakiaren dimentsioa kontuan izanda, neurria begi onez ikusi eta babestuko zutenaren esperantza genuen. Zoritxarrez, ez EAJ-k ez PSE-k ez zuten gure egitasmoa babestu.

Udalbatzako gehiengoak izanagatik ere, herriak eta herritarrek bestelako mezu batzuk merezi dituztela iruditzen zaigu. Pandemiak ekarrita, bizitako ziurgabetasun eta aurrekaririk gabeko egoerari gure herriak elkartasunetik modu eredugarrian erantzuten jakin duen heinean, elkarlana, akordioak eta ziurtasuna merezi ditugu usurbildarrok. Aitortu behar dugu batzuetan etsigarriak direla oposizioaren aldetik jasotzen ditugun erantzunak,

baina aurrez esandako moduan, gure herrikideek, bestelako mezu batzuk merezi dituzte, eta horregatik, akordioak lortzeko saiakerarekin aurrera egingo dugu.

Euskal Herria, eta baita Usurbil ere, garai berri baten lekuko dira. 10 urte dira ETA-k bere jarduna eten zuela eta ezagutu berri dugun Aieteko adierazpena beste pauso garrantzitsu bat izan da. Egoera berri honek euskal politikagintzako egunerokotasunean bere isla izan beharko lukeela iruditzen zaigu, eta zorionez, apurka-apurka bada ere, lehen pentsaezinak ziren akordioak ikusten dira.

Horixe da guri gustatuko litzaigukeena. 2022ko Udal Aurrekontuen lanketan murgilduta gauden honetan, usurbildarrei alderdi ezberdinen arteko akordio bat iragartzeko gai izatea. Oraindik, paper zurien gainean lanean ari garen honetan ekar-

penak/ideiak/proposamenak jaso eta partekatzeko prest gaudete. Halaxe adierazi genien pasaden astean EAJ eta PSE-ri, haiekin izandako bileretan.

Herri ikuspegiz aritzea konpromisoa dugu, eta akordioak bi norabidetan landu nahi ditugu: batetik, Usurbilgo udalbatza osatzen duten alderdien artean; eta, bestetik, herritar eta herriko eragileekin. Hori lortzeko, bilera sorta egingo du udal-gobernuak hurrengo asteetan, herri adostasun horiek josi ahal izateko. Aurreko urteetan egin bezala, auzoz auzo bilerak egingo ditugu azaroan zehar. Aurrekontuek badituzte mugak. Ezin guztiari tokia egin. Baina, gure legealdiko plana iparrorratz eta auzotarrek ere erakitzen ari garen elkarlana oinarri, horren zerbitzura atonduko ditugu 2022ko aurrekontuak.

EH Bildu

Julen Arteaga: “Obra batzuk martxan genituen. Pandemiarekin erabat gelditu ziren”

Julen Arteaga Iriondo Oriogami arkitektura taldeko kideetako bat da. Etorkizun hurbila beltz samar irudikatzen duete ekonomia adituek. Eraikuntza sektorean ordea, argi izpi bat sumatu dugu Julenen hitzetan: “guk gremioekin egiten dugu lan: igeltseroekin, iturginekin edota eraikuntza-enpresa txikiekin... Eta denak lan pila batekin dabilta”.

NOAUA! Arkitektoa zara ogibidez. Zuen sektorean dagoeneko sumatu al da pandemiaren eragina ala epe erdira igarriko al dira paralisi ekonomikoaren ondorioak?

Julen Arteaga: Obra batzuk martxan genituen eta egun batetik bestera erabat gelditu ziren. Hastear ziren beste proiektu batzuk ere eten egin ziren. Guk gehienbat zaharberritze lanak egiten ditugu. Zaharberritzeek bi adar nagusi dauzkate. Alde batetik, lokal komertzialekin eta gisa horretako saltokiekin lan egin izan dugu. Beste alde batetik, etxebizitzaren zaharberritzeak bideratu izan ditugu.

Lokalen sektorean ematen du geldi dagoela dena. Guri



Julen Arteaga arkitektoa da. Etxebizitzaren zaharberritzean lan asko dagoela azaldu digu.

JULEN ARTEAGA

“Agian eraikuntza enpresa handiagotetan lan falta nabaria izango da, baina ez gurean. Guk gremio ezberdinekin egiten dugu lan eta, orokorrean, lan pila batekin dabilta orain”

behintzat, arlo horretan lan gutxi iritsi zaigu azken urte honetan. Akaso ez delako saltoki

bat martxan jartzeko unerik onena.

Etxebizitzaren zaharberritzean ordea, lana egon badago. Pandemiaren ondorioz urtebetez etxean sartuta pasa dugulako izango da akaso, baina lana egon badago. Inguruan ditugun arkitektoek ere antzeko kontuak aipatzen dizkigute. Guk gremioekin egiten dugu lan: igeltseroekin, iturginekin edota eraikuntza-enpresa txikiekin... Eta denak lan pila ba-

tekin dabilta.

Ez dakit hemendik denbora batera lan bolumen hau jaitsi egingo ote den ala ez. Baina gaur egun, lanez gainezka dabilta denak. Askok hornikuntza arazoak dituzte gainera, eta materialen prezioak pila bat igotzen ari dira. Arazo hori dute orain, baina lan falta behintzat, momentu honetan ez da nabari. Agian eraikuntza enpresa handiagotetan igarriko da lan falta.

“Kabiene gabe Origami ez zen existituko”

NOAUA! Origami Arkitektura Taldearen egoitza Kabiene dago. Autonomoz osaturiko txoko honen sortzaileetako batzuk izan zireten. Zer nolako garrantzia izan du Kabiene Origamiren ibilbidean eta garapenean?

Julen Arteaga: Ezinbestekoa. Uste dut Kabiene gabe Origami ez zela existituko, edo ez behintzat orain den bezala. Kabiene gauden askok etxetik egiten genuen lan. Guk,

hasiera batean, lehiaketetara aurkezteko unibertsitatean egiten genuen lan, erdi ezkutuan. Ez geneukan beste lekurik elkartzeko. Bezero batzuekin tabernetan bildu zaitezke, baina denekin ez, eta gure bilera ere tabernetan egitea ez da oso bideragarria.

Gainera, etxetik ari ginenean, denbora guztian lantokian nengoela iruditzen zitzaidan eta ez nuen deskonektatzen.

Beraz, espazio bat behar ge-

nuen eta Kabiene oso ondo etorri zitzaigun. Espazioaz gain, oso garrantzitsua izan da gure ibilbidean beste autonomo batzuekin elkarrekin.

Badago beste arkitekto bat Kabiene, Dani Carballo. Beste estudio bat dauka eta berak bere lana du, baina 20 urte baino gehiagoko esperientzia dauka. Guretzako oso aberasgarria izaten ari da. Eman dezake gure kompetentzia izan daitekeela, baina guztiz kontrakoa da;

pila bat lagutzen digu.

Kabiene gauden beste guztiak ere autonomoak dira eta arlo batzuetan arazo berdinak ditugu: tramitazio fiskalak, aurrekontuak... Horrelakoak asko errepikatzen dira.

Askotan gainera, terapia kolektibo modukoak egiten ditugu. Etxetik lanean zaude nean, momentu batzuetan oso bakarrik sentitzen zara, eta ez daukazu zure egoera berean dagoen norbait inguruan.

“Herritarren parte hartzearen aldeko mugimenduekin identifikatu naiz beti”

NOAUA! Gure Esku Dago taldeko kide ere bazara. Zerk erakarri zintuen edo zerk eraman zintuen Gure Eskun parte hartzera?

Julen Arteaga: Gure Esku Dagok lema bat dauka: herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu, herritarren garaia da. Nik lema hori irakurri eta Gure Esku Dago arrazoi osoa zuela iruditu zitzaidan. Gainera, ordura arte ez nuen horrelako mugimenduetan parte hartu. Agian garai gatazkatsuak izan zirelako aurrekoak... Ez dakit ondo zergatik, baina lema horrek harrapatu egin ninduen.

Gure Esku Dago sortu zenean, unibertsitateko ikasketak bukatuta neuzkan eta banuen herrigintzan parte hartzeko gogoia. Ikusita Eskozian zer-nolako pausoak ari ziren ematen, gauza bera Katalunian... Eta neure buruari esan nion: euskaldunok ere olatu honetara igo beharra daukagu nolabait.

Gure Esku Dago erabakitze-ko eskubidea autodeterminazio



“Gure Esku Dago sortu zenean, unibertsitateko ikasketak bukatuta neuzkan eta banuen herrigintzan parte hartzeko gogoia”.

JULEN ARTEAGA

“Gure Esku Dagoren zortzi urte hauetan, usurbildarren erantzuna oso ona izan da beti”

eskubidearekin lotzen du, baina erabakiak non eta nola hartzen diren zalantzan jartzen duen mugimendua ere bada.

Herritarren parte hartzearen aldeko jarrera izan dut beti,

eta mugimendu horiekin oso identifikatuta sentitzen nintzen ni. Gure Esku Dago Usurbilen antolatu zuen lehenengo bileran ez nintzen izan, baina bilera horren argazkia ikusi nuen NOAUA!n, eta pare bat lagun gertukoak nituen. Hori ikusita, hurrengo bilerara joatea erabaki nuen.

‘Hamaika gara’ erreferendumen aldeko sinadura bilketa egiten aritu zarete azken hilabe-

teotan. Pandemiak ez zuen asko lagunduko, ezta?

Pandemiak asko zaildu dizkigu lanak. Bi hilabete egon ginen bilerarik egin gabe eta horrek gauzak geldotu egiten ditu. Garai zaila izan da. Baina Gure Esku Dagoren zortzi urte hauetan, usurbildarren erantzuna oso ona izan da beti. Erreferendumen eta erabakitze eskubidearen aldeko talde eragile bat gara eta gu sortu aurretik jada bi erreferendum eginak ziren Usurbilen. Lehena udaletxeak antolatuta, atez atekoaren inguruan. Eta bestea herritarrek antolatutakoa, erraustegiaren inguruan. Gainera, autodeterminazioak soziologikoki badauka babes bat Usurbilen. Beraz, alde horretatik, uste dut ez garela eremu zaillean ibili. Herrian bertan ekitaldiak antolatu izan ditugunean, erantzuna beti oso ona izan da; bai bozkatzera joateko garaian, baina baita grabaketetarako eta argazkitarako deitu izan ditugunean ere.

“NOAUA! ezinbesteko bilakatu da Usurbilen”

NOAUA! 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

Julen Arteaga: Ni ez naiz auzartzen esatera zer duen faltan edota zer duen soberan. Uste dut kazetaritzak izan duela horrelako erronka bat Internetekin eta sare sozialekin, eta iruditzen zait olatu

horretan toki bat hartu duela NOAUA!k. Txukun igo dela gainera olatu horretara. Esango nuke Euskal Herri mailako hedabide handiagoak baino azkarrago ibili zaretela tokiko komunikabide asko.

Gainontzean, esango nuke aldizkaria ezinbesteko tresna bihurtu dela Usurbilen. Talde

eragile ezberdinetan parte hartu izan dudanean (auzoko jai batzordean, Gure Esku Dagon...) NOAUA! beti egon da hor (...).

Hobetzekorik? Beti dago hobetzekorik. Kabieneko esperientziarengatik izango da, baina 25 urte eta gero pape-reko euskarriari bueltatxo bat emango nioke, eta diseinuari

bereziki, bigarren, hirugarren edo laugarren bueltatxo bat.

Bukatzeko, jende askok bizitza osoan ezagutu du NOAUA! eta akaso horregatik ez diogu duen benetako garrantzia ematen. NOAUA! aldizkaririk eta elkarterik gabe ordea, galera handia izango luke Usurbilek.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Pako Alkortaren erretiroa, duela 25 urteko NOAUA! aldizkariko hizpide nagusia

Pako Alkortaren erretiroa izan zen 1996ko urriko bigarren alearen protagonista nagusia. Pilotari eta pilota zaleez inguratuta agur esan zion urteetako lanari.

Iritziaren atalean, **Anjel Nuñez Barrero** ornitologoak idatzi zuen zutabea. Usoen migrazioa izan zuen hizpide: “Hori ikuskizuna! Artelatz eta arteetan ibiltzen dira bazkan, baina batzuetan oso gutxi ikusten dira. Gutxiago ote daude? Ez, usoa osasuntsu dabil Europan”. “Abertzale iraindu” bategi ere bere iritzia eskaini nahi izan zuen frankismoaren arrastoetoi buruz, eta Independentzia Egunak emandako fruituei buruz.

Berriketan atalean eginiko elkarrizketa behean izango duzue eskuragai: **Joxe Torregarai** umorista elkarrizketatu zuten aldi hartan.

Kalejiran, berriz, denetari-ko gaiak landu zituzten: **Peña Pagola**, Atxegaldeko etxetan hezetasun arazoak, San Praixkuetan izandako auto istripua, Santueneako zubia, **Zubietako Pilota Elkartea**, Santueneako espaloien egoera eta **Erroizpe Elkartea**.


Ehiza garaia bete-betean zela, kale galdeketa egin zuten NOAUA!ko kazetariak: *ehizaren alde edo aurka zaude?* Independentzia Egunari lotuta, Ipar Euskal Herriko egoera politikoa aztertu zuten hurrengo orrian, zati ugariz osatutako

puzlea zela baieztatuz.

Erreportajearen atalean, **Pako Alkorta** izan zen protagonista, frontoian bizitza osoa pasatu eta erretiroa hartzearen zegoen entrenatzailearen ibilbidea aztertu zuten protagonistarekin. **Enrike Huizik** hartu zion erreleboa jubilatuta berriari.

Porrusalda atalean

Juan Altuna usurbildarraren hai-ziendak bi sari irabazi zituen Tolosan, baiezkora eman zioten **Michelingo** plan sozial berriari, **Usurbilgo intsumituen taldeak** Intsumisio kalea izeneko kale bat jartzeko mozioa aurkeztu zuen, **Bota Punttubak** Bertso Eskolaren ikasturte berria aurkeztu zuen, urteko lehen angelak harrapatu zituzten, **Zubie-**



1996ko urriaren 25eko portadan, Pako Alkorta eta orduko ikasleak.

tako Herri Batzordea sortu zen, **Ziortzak** ikasturte berria martxan jarri zuen, San Praixkue-tako errifetan Maria Angeles Arruti saritua izan zen...

Duela 25 urte

NOAUA! 6. zenbakia 1996ko urriaren 25ean

“Umorean eta sanoa izan dugu betidanik”

1996ko urriko bigarren alean, Joxe Torregarairi eginiko elkarrizketa plazaratu zuten. Umorean lan asko eginiko gizona zen, eta garai hartako umoreaz aritu zen NOAUA!rekin.

NOAUA! Azken aldian telebistan maiz ikusi zaitugu txisteak direla eta ez direla.

Joxe Torregarai: Bai, halaxe da, eta ni neronek oso gustura ibili naiz. Mutilak animatuen Txiskolarako, eta gustura lagundu nien.

Eta irabazle gelditu gainera.

Bai. Izan ere, Usurbilen potentzial bat dagoela uste dut. Umorean eta sanoa izan dugu betidanik. Eta ezkutuan ere, oso onak direnak badaude.

Berezko trebeziarik behar al da txisteak kontatzeko?

Ez. Ikasi egiten da, entzun, gogo jarri, eta aurpegia eman.

Lehenago eta oraingo txisteen artean desberdintasunik ba al dago?

Bai. Lehenagoak sanoagoak ziren. Oraingoak pipermina bezalakoak dira. Eta batzuk mindu egiten dute gainera.

Nolako txisteak ditugu gogoko?

Sanoak, pikanteak eta maliziadunak.

Txisteak kontatzen egon zaren denborarik luzeena zenbatekoa izan da?

Aizarnazabalen egun eta erdi egun ginen bi lagun.

Inguruko herrietara ere joango

zineten.

Bai, festetara joaten ginenean saio batzuk egiten genituen pasadizo eta txisteak kontatuz.

Txisteak paperean gorde al daitezke?

Bai, gorde bai. Nik neuk idatziak dauzkat. Baina ez dira irakurtzeko, gogora etortzeko eta kontatzeko baizik.

Hitz zaharrak, ordea, idatzita ondo gorde daitezke, eta horretan ari zarete “hitzak jasoz” lanean.

Bai, zortzi lagun inguru, herrian galtzen ari diren hitzak berreskuratzen ari gara.

Norengana jotzen duzue?

Herriko adineko jendearengana. Guk jadanik ezagutzen ez ditugun hitzak erabiltzen dituzte. Oso gustora esaten diz-



Joxe Torregarai, 1996an.

kigute, lagungarri sentitzen direlako.

Zergatik horrelako lana?

Hitez gain, kultura ere galtzen ari garelako, eta gurea baino aberatsa den kultura, dudarik gabe.

Zer egingo duzue bildutako hitzekin?

Udaletxean utziko dugu nahi duenak erabiltzeko.

Erraustegiaren kutsadura aztertzeko lagin bilketa berria egin dute

Zubietako Lantzen elkar-
teak eta Erraustegiaren
Aurkako Mugimen-
duak Holandako ToxicWatch
fundazioarekin elkarlanean,
Zubietako erraustegiaren kutsadura neurtzeko 2019an abiarazitako kontrol herritarri segida eman diote egunotan. Hirugarren lagin bilketa bideratu zuten urriko bigarren asteburuan, aipatu herri mugimenduko bolondres talde batek parte hartu zuen, “ToxicWatch fundazioak finkatutako protokolo zorrotza jarraituz”.

Zubietako Lantzen elkar-
teak eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduk 2019an ekin zioten egitasmo honi, herritarrek “crowdfunding” bidez eta zenbait erakundeek diruz lagunduta. ToxicWatch fundazioari enkargatu zioten Zubietako erraustegiaren biomonitorizazio ikerketa egitea, “herritarrek ezin direlako fidatu ez erraustegia kudeatzen duten enpresen eta ez Gipuzkoako agintarien kontrol-
letan; enpresak eta agintariak denak saltsa berean nahastuta baitaude, geroztik Arkaitzerrekan zientzian arrain hil zi-



Hirugarren lagin bilketa bideratu zuten urriko bigarren asteburuan.

KLIMA ALDAKETARI BURUZKO HITZALDIA

“Unai Pascualek klima aldaketari buruzko hitzaldia eskainiko du azaroaren 2an Sutegin”

tuen kutsaketaren kontrolik eza lotsagarriak erakutsi zuen moduan”. Erraustegia piztu aurretik bideratu zuten lehen lagin bilketaren emaitzak dekkiproiektua.wixsite.com/info atarian kontsulta ditzakezue.

Lurra behatzen

Aurreko urteetako esperientziari jarraiki, “oilategietako oiloen arrautzak, hainbat landareren orriak (Pinus radia-

tapinuenak, Ilex aquifolium gorostienak, Ulex europaeus otearenak), goroldioa, lurra, erreko sedimentua eta ura”, eremuotako laginak hartu dituzte. Laginak hartu dituzte “Zubietako erraustegiaren 2 kilometroko inguru batean, analizatzeko dioxinak, dioxinak bezalako PCBak, aktibitate estrogenikoa eta metal astunak”.

Egoitza Holandan kokatua duen ToxicWatch fundazioak “parte hartzen du Basilea eta Stockholmeko Itunetako lan-taldeetan, Nazio Batuen Erakundearen barruan, eta berak finkatu du urtez urte zer aztertu. Alde batetik, libre hazitako oiloen arrautzak, berez indikadore onak direlako

lurrean egon daitekeen dioxina maila ezagutzeko eta, gainera, jendeak hain ugari jaten dituen arrautzak direlako inguruko dioxina eta beste POP kutsakorrak gizakiengana iristeko bide nabarmena. Egunotan erraustegiaren inguruko 5 kilometroko radioan dauden zenbait oilategietako arrautzak bildu dituzte, 2019ko lehen azterketan ToxicWatchek egokitzen izendatutakoetan”.

Hitzaldia Sutegin

Anerreka ingurumen elkar-
teak antolatuta, azaroaren 2an 18:30ean Sutegiko auditorioan. Ekonomialari ekologikoa, BC-3ko ikertzailea, Gobernu-arteko IPBES plataformako kide Unai Pascualek eskainiko duen hitzaldian, klima aldaketa izango dute hizpide. “Gai historiko bat da”, antolatzaileen esanetan. Gai kezkarria. “Herrialde bakoitzak metatuta zenbat CO2 sortu duen begiratu beharra dago bakoitzaren erantzukizuna neurtzeko. 2015ean Parisen hartu zituzten promesak beteko balira ere lur-
raren tenperatura 3 gradutatik gora igoko litzateke”, ohartarazi dute Anerrekatik.

Kontrolaren garrantzia

Hona hemen ToxicWatch fundazioak Zubietako erraustegiaren kutsadura hain gertutik kontrolatzeak duen garrantzia nabarmentzeko aipatzen dituen argudioak:

■ Erraustegiek gaur egiten dituzten kontrolak, -jabeari aurretik abisatuta egiteaz gain- ordu gutxi batzuetako emisioak neurtzen dituzte: erraustegiak 8.000 ordu egi-

ten baditu lanean, horien %0,1 baizik ez.

■ Erraustegien jabeek beren nahieran erabiltzen dituzte Airearen Kutsadura Kontrolatzeko Mekanismoak.

■ Kontrolak egiten dituzte soilik erraustegia “ohiko funtzionamenduan” ari denean, baina jakina da kutsagarri gehienak emititzen direla “ohikoak ez diren uneetan, labean piztu-itxalietan, filtroen aldaketetan,

eta abar).

■ Europar Batasunak soilik dioxinak eta furanoak soilik arautzen ditu baina ez beste kutsagarri organiko iraunkor asko: dl-PCBak, dioxina brominatua eta PFOSak.

■ Erraustegien aldekoek diote tenperatura jakin batean desegiten direla dioxinak eta beste kutsagaiak, baina gero ez dago behar bezala bermatuta erretako masa guztian gutxieneko

tenperatura hori lortzea.

■ Gaur egun etxeetako hondakinak gero eta neurri handiagoan jo ditzakegu hondakin industrialtzat, kiskaltzera bidaltzen diren materialen osaketagatik. Horregatik tenperatura handiagotan erretzea eskatzen dute, esaterako 1.100°C harrapatuz konbustio osteko gunean, eta ez gaur eskatzen diren 800°C-etan.

“Auzoa berpiztea dugu helburu, eta auzotarren arteko harremanak indartzea”

Kalezartarrek herri antzerkia egingo dute auzoan azaroaren 6an, eguerdiko 12etan, Usurbilen sorreraren 650. urteurrenaren harira. Antzerkiaren bitartez, 1371 urteari helduko diote eta Usurbilen historiaren hamarkada batzuk irudikatuko dituzte. Aitor Eizagirre eta Beñat Arruti kalezartarrak izan dira proiektu honen bihotzean dauden bi auzotar eta beraiekin izan da NOAUA! antzezlanaren berri jasotzeko.

NOAUA! Kalezartarrek herri antzerkia egingo duzue Usurbilen 650. urteurrena dela eta. Nolatan bururatu zitzaizuen antzerkia egitea?

Beñat Arruti: Duela urtebete martxan jarri genuen auzo elkarte, auzoa berpizteko asmoarekin. Ekintzak antolatzea beti izan dugu buruan helburu nagusi hori betetzeko. Usurbilen sorreraren 650. urteurrena aitzakia bat izan da guretzat gure auzo proiektua lantzeko.

Aitor Eizagirre: Elkartearen barruan lantalde batzuk daude eta, horien artean, urteko ekintzak antolatzeko taldea. Talde horretan, zer egin pentsatzen egon ginen eta bururatu zitzaizkigun guztiak jada egin



“Modu parte-hartzaile batean gure herriaren historiaren pasarte batzuk kontatu nahi ditugu”.

BEÑAT ARRUTI

“Usurbilgo sorreraren 650. urteurrena aitzakia bat izan da guretzat, gure auzo proiektua lantzeko Kalezarren”

da daude. Horien artean, aipagarriena baserrien argazkiak landu eta horrekin liburu bat edo erakusketa bat egitea. Hori eginda dago jada eta berriz egiteak ez dauka zentzurik. Ideia parte-hartzaileago baten bila hasi ginen eta antzerkiarena

bururatu zitzaigun.

Usurbilgo historiaren mende batzuetako historia mardula izango da, ezta?

B. A.: Gure asmoa ez da historiaren laburpen bat egitea. Modu parte-hartzaile batean gure herriaren historiaren pasarte batzuk kontatu nahi ditugu. Pieza entretenigarri eta informatibo bat sortu nahi izan dugu.

A. E.: Gure antzezlanaren oinarrian Lourdes Odriozola Oyarbide historialariaren lan batean dago oinarrituta. Historian doktorea da bera, eta

2004an Usurbilgo Udalarentzat prestatu zuen lanean oinarritu gara. Suteen ondorioz, artxibategietako informazio asko galdu da urteetan zehar, eta doktore honek ikerketa lan izugarria egin zuen Usurbilgo historian. Auzoetako historia ere luze eta zabal dago azalduta lan idatzi honetan. Lan horretatik ateratako pasarte batzuk antzeztuko ditugu, eta nik uste interesgarria izan daitekeela usurbildar askorentzat gure herriaren historiara hurbildu eta gehiago jakiteko gosea sortzeko.

“Izanari izena jarri zion Belmontek”

NOAUA! Kalezartar askok harro esaten dute Usurbil Kalezarren hasi zela, garai-ko Belmonten.

B. A.: Usurbil herri modura Kalezarren batu zen, hori argi daukagu guk. 1371 urtea baino lehen ere Zubieta existitzen zen, Aginaga ere bai, eta egun Usurbilgo auzo diren beste hainbat leku ere eliz-barrutiak ziren garai haietan. Belmonten egin zen

elkarketa prozesu hori. Izanari izena jarri zion Belmontek.

A. E.: Lur hauetan jendea bizi izan da, gutxienez, duela 5.000 urtetik. Erromatar garai-ko aztarna asko aurkitu dira Andatzan eta inguruetan, eta beraz, nukleo bat bazegoen. Antxo Azkarra erregeak XII. mendean Donostiari Jakako foruak eman zizkion, eta herri asko bildu zituen hark Hondarribiatik hasi eta Ori-

rano. Hurrengo urteetan, herri batzuk boterea irabazten joan ziren eta besteak, berriz, galtzen. Azken horien artean, Usurbil. Botere galera hori ikusita, Gaztelako erregearengana jo zuten boterea galtzen ari ziren herriek “Carta puebla” eskatuz.

Usurbil beti egon da hemen, baina 1371. urtean lortu zuten herri izendapen juridiko hori. Auzoak oso

sakabanatuta zeuden, eta konturatuta zeuden nukleo bat behar zutela, jauntxoaren arteko ikamiketarik eta borroketatik babesteko beharra baitzuten. Oso modu demokratikoan egin zituzten lur banaketak, denei zati bera emanda. Justizia nahi zuten, eta alkateak aukeratzeko gaitasunaz gain, merkataritzarako ere garrantzia berezia zuen.

“Kalezartarrez gain, Usurbilgo txistulariek ere hartuko dute parte”

NOAUA! Historiaren garai hori gogora ekarriko duzue antzerkiaren bidez, ezta?

Aitor Eizagirre: Lehen aipatu dugun ikerketa lan horren %10 bat inguru kontatuko dugu. Auzoetako historia luze eta zabal kontatzen du ikerketa lanak, baina guk hori dena ezin dugu sartu, bestela antzerki bat baino gehiago Zuberoako orduak eta orduak behar dituen maskarada bat aterako litzaike. Aipatu beharra dago garai haietarako oso gizarte modernoa zela Usurbilgoa eta auzoetako antolaketa sistema ere txalogarria.

Beñat Arruti: Amu lan bat egin nahi dugu antzerkiarekin, ea hori ikusita norbaitek gai horri heltzen dion eta gehiago jakiteko aukera ematen digun. Landu beharreko lana da.

Antzezlanean agertuko diren pertsonaiak benetan existitutako usurbildarrak izango dira?

B. A.: Ez daude benetako pertsona zehatzak. Ikerketa lanean ere ez dira izen konkretuak agertzen, ez behintzat garai hari lotuta. Garaiko lanbideak antzeztuko ditugu, eta orduko giroa nolakoa izan zitekeen ere bai. Erregeen izenak eta benetako datu historiko orokorrak benetakoak izango dira, garai historiko batean kokatzen delako Usurbilgo



Errebaltxiki baserriaren parean hasiko da antzerkia. “Bere garaian, Belmonteren sarrera nagusia bertan zegoen”.

PARTE-HARTZAILEA

“Ez da 15 pertsonak osatutako antzerki bat, auzotarren artean sortutako herri antzerki bat baizik. Orain arte ahoz aho aritu gara deialdia zabaltzen, eta nahi genuke askoz gehiago izatea”

historia ere, baina gainontzeko pertsonaiak ez daude pertsona zehatzetan oinarrituta.

A. E.: Usurbilgo lehenengo alkatearen izena, adibidez, ez dago dokumentatuta. Doku-

mentatuta dauden auzo komertzial batzuetan eta, izenen bat agertzen da, baina hortik kanpo bat ere ez. Lehen alkatearen izena XVI. mendean dago dokumentatuta. Beraz, gure antzerkia ahalik eta objektiboena izango da.

Momentuz, antzerkian parte hartuko duten auzotarrak 20 inguru dira. Nola lortu duzue horrenbeste jende animatzea?

B. A.: Geneukan beldurrik handiena, eta oraindik ere daukagun beldur handiena auzotar gutxi animatzearen kontua da. Hasieran, pertsonaia nagusiak ixtea zen helburua eta behin

hori lortuta, deialdia luzatu nahi dugu gehiagok ere parte har dezaten. Ez da 15 pertsonak osatutako antzerki bat, baizik eta auzotarren artean sortutako herri antzerki bat. Orain arte ahoz aho aritu gara deialdia zabaltzen, eta nahi genuke orain ere gehiago izatea. Momentuz 25 bat izango gara. Proiektua erakargarria izan daiteke askorentzat, baina lotsak ere faktore garrantzitsu izaten dira kasu hauetan. Auzoa berpiztea dugu helburua, eta auzotarren arteko harremanak indartzea. Auzotarrez gain, Usurbilgo txistulariek ere parte hartuko dute.

“Antzerkia azaroaren 6an egingo dugu, eguerdian”

NOAUA! Antzerkia ikusi nahi dutenek zer egin beharko dute?

A. E.: Antzerkia azaroaren 6an izango da, eguerdiko 12:00etan. Aliproxen partean dagoen aldatatik igotzea eskatu behar

diegu herritar guztiei, antzerkia inguru horretan hasiko baita Errebaltxiki baserriaren parean. Garaian, Belmonteren sarrera nagusia zen leku hori, eta bertan hasiko gara. Gero, antzerkiaren logikak kalean barna

eramango gaitu. Ordubeteko saioa izango da gutxi gorabehera, eta doakoa. Izen ematerik ez da egin beharko printzipioz, ez dago neurri berezirik hartu beharrik kalean izango delako, eta beraz, alde horretatik

ez dago arazorik, dena ondo bidean. Bizkarreko aldapatik igotzearena oso garrantzitsua da guretzat antolaketa hori ez zailtzeko. Beraz, mesedez, denak bertatik igo daitezela eta buruarekin joka dezagula.



NOAUA! Kultur Elkartea babestuko zuen herririk gabe ez zen 25 urte betetzera helduko. Eta horren erakusle izanaraz frontoiko ekitaldia. Web orrialdean topatuko duzue festari buruzko kronikatxoa eta argazki bilduma.

Noauak 25 urte

Mila bederatziehun ta laurogeita hamaseian lehenengoz azaldu zinen gure etxeko buzoian. Informazio guztia nahiz ez den batek nahi duna Bat horrek aurki lezake sarritan zerbait txukuna. Hogeitabost urteotan etxez etxe zabilta zu Sukalderaino sartuaz pizturikan hamaika su (bis) Zu gabe ezin dut bizi maitemindurik naukazu.

Herrian sortutakoa herriarentzat sortua Iturriak ematen du Ez daukagu agortua Informazioarena Naiz ez inporta gehiena Edonork beti zerbait du Interesgarria dena Hogeitabost urteotan etxez etxe zabilta zu Sukalderaino sartuaz pizturikan hamaika su (bis) Zu gabe ezin dut bizi maitemindurik naukazu.



Inaxio Usarralde, Kerman Errekondo eta Iñaki Agirresarobek urteurrenerako propio idatzitako bertsoak lehen biek abestu zituzten. Manex Torrealdaik eman zien doinua.

Pittinka bihurtu zinen kazetarien eskola ofizioan trebatuz hargina harrian nola... Iragarkiak lortzen ta bulegoko lan andana Postetxe zahar haretan Ikusi zen auzolana. Hogeitabost urteotan etxez etxe zabilta zu Sukalderaino sartuaz piztu duzu hamaika su (bis) Zu gabe ezin dut bizi maitemindurik naukazu.

Argazkitik argazkira herriaren lekukoa Guztion oroimenean benetan dago gakoa. Argi dezagun kalea ilundu gabe jendea, norberaren argazkia izan dadin hor gordea. Hogeitabost urteotan etxez etxe zabilta zu Sukalderaino sartuaz pizturikan hamaika su (bis) Zu gabe ezin dut bizi maitemindurik naukazu.

Euskara indartu nahian Sortu zen aldizkaria Herritar askori esker Gertatu zen miraria Sinesten genuelako Atera zinen kalera Geroztikan abenturak Etenik gabe aurrera Segi ezazu horrela Noaua joan-da-etorritz Beste hogeitabost urte osatu itzazu neurritz (bis) eta orduan kantura etorriko gera berriz.



...a zen baita, mende laurdeneko NOAUA!Fest ospakizuna. Herriak babestu eta sustatu zuen larunbat arratsaldeko

Bueltan da Artisau Azoka, mende laurdeneko ibilbidea osatuta

Iaz osasun krisialdiagatik bertan behera utzitako artisauen topagunea bueltan da aurtengoan. 25. ediziora heldu den hitzordua prestatu du Aitzaga Elkarteak azaroaren lehen, goiz eta eguerdi parterako frontoian.

Pozik da antolakuntza, aurtan bai, denetariko artisauak biltzen dituen hitzordua egitea ahalbidetu dielako osasun krisialdiak. Ohi bezala, herriko nahiz Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako artisauen postuek girotuko dute azaroko lehen eguna. “Bixigintza, larrugintza, egur lanketa, beira, keramika, otargintza, metalgintza, harriak, ukenduak, makramea, pilotak, haziak...”, denetariko postuak iragarri ditu antolakuntzak, tartean lerrootan elkarriketatu ditugun hiru herritarronak.



Pozik da antolakuntza, aurtan bai, Artisau Azoka egitea ahalbidetu dielako osasun krisialdiak. Irudia 2019koa da. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

Zorione Mendez Martin: “Gustatzen zaidan plaza horixe da, azokena”

NOAUA! Bidaia batetik itzuli berria zara?

Zorione Mendez Martin: Salamancako San Martin del Castañarreko Biosfera gazteluan erakusketa jartzetik nator. Erakusketaren aitzakiarekin egun batzuk bertan izan naiz oporretan. Azaroaren lehen urte amaierara arte, Itziariko Burugorri ostatuan jarriko dut bestea. Alde batetik bestera nabil.

Eta tartean Artisau Azokan parte hartuko duzu?

Bai eta herrian egingo den beste azoka batean baita. Aurtan laugarrenez parte hartuko dut.

Zer da erakutsi nahi duzuna?

“Marrak” izena du nire proiektuak;

ilustrazioak, poltsak, kamisetak, agendak, koadernoak... Ilustrazioak eta osagarriak izango ditut postuan.

“Marrak” proiektua garatzen joan ahala, euskarri gehiagotara zabaltzen joan zara zure sortze lanak.

Artista beka bat jaso dut Azpeitiako Dinamo Sormen Gunean. “Habitat” izeneko proiektu bat garatzeko urtebeteko tartea dut. Tarteka hara joaten naiz. Azkoitira joaten nintzen bestalde buzingintza klaseak jasotzera. Usurbilen galdetzen hasi eta Buztinzulo egitasmoaren berri izan dut, parte hartzera animatu naiz. Horrez gain, tarteka panpin tailerrak ematen ditut eskole-

tan. Patroigintza eta josteta ikasten nuenez Donostian, tarteka ematen ditut tailerrak moda jasangarriaren inguruan. Egitasmo gehiagotan ere banabil.

Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean martxa hartzen berriz.

Orain ez nago sormen prozesu betean. Erretratu batzuk sortzeko enkargu batzuk baditut, baina ez naiz lehen bezala sortzen ari. Boladak izaten dira.

Esan liteke egindakoa erakusten zabilzala. Artisau Azoka bezalako ekimenak bide eraginkorrenak dira jendearengana heltzeko?

Niretzat azokak dira ekimenik



“Marrak” egitasmoa erakutsiko du.

politena. Gustatzen zaidan plaza horixe da, azokena. Zizurkilgo azokan egon nintzen duela gutxi. Beste artisau batzuk ezagutzen dituzu, kontaktuak egin, beste harreman goxoago bat dago hor.

Jurgi Fuentes Goikoetxea: “Aurten adarrak eta maskorrak jarriko ditut”

NOAUA! Nola izendatzen duzu zure jarduera?

Jurgi Fuentes Goikoetxea: Adarregile naizela esaten dut. Baina berez egiten dudana lantzea da.

Zertan datza zure artisau jardunak?

Jotzeko adarrak egiten ditut; zulo bat egin eta putz egitea litzateke. Baina noski, horra iristeko lehenik arazoa adarra lortzea da. Berez Europako lege bat dago adarrak eskuratzeari zailtasunak duena, ahal den moduan lortzen da. Batzuetan hutsik etortzen da, besteetan barruan hezurra duela. Kasu horretan hustu egin behar da. Eta ondoren dator zuloa egitea. Badu bere arrisku puntua

albo batetik atera daitekeelako, baina moztu eta zuloa egiten den unetik jotzeko moduan legoke adarra. Baina gero hortik produktua amaitua izan arte lan asko dago; lixatu, garbitu, eta animaliek izaten dituzten kolpeengatik konpondu beharra izaten da. Guztiz eskuz egin beharreko lana da.

“Denak nik egindakoak” 2019ko azokan, adar mota ezberdinak jarri zenituen ikusgai.

Antilope ezberdinenak. Aurten ere antzeko, adarrak eta maskorrak jarriko ditut. Aurrekoan nire bildumakoak ziren, aurtengoak ordea denak nik egindakoak. Berrikuntza

moduan haurrentzako adar txikiak ere prestatu ditut. Aurten ere adar guztiak probatzeko aukera eskainiko dut, desinfekatzeko baliabideak izango ditut.

Artisau Azokak zer ekarpen egiten dio artisauari?

Aurrekoan oso ondo pasanuen; batzuekin hitz egiten, besteekin adarra probatzen. Artisau batzuk bere saltokia badute, baina beste batzuk ez; nire kasuan ez naiz honetara dedikatzen eta nire produktuak erakusteko ez dut beste plazarik.

Zein da zure lan txokoa?

Usurbilen bizi naiz baina berez lantoki fisikoa gurasoen



“Jotzeko adarrak egiten ditut”.

etxean, Mungian dut. Itxialdian eta ondoren Bizkaira joaterik izan ez nuenean Jokin Errasti herritarrak utzi zidan beraienean lekutxo bat eta berarekin egoten nintzen adarrak egiten. Eskertu nahiko nioke.

Inma Arroyo Iruretagoiena: “Nire aurreneko aldia izango da azoka batean”

NOAUA! Nolatan animatu zara estreinako Artisau Azokan parte hartzera?

Inma Arroyo Iruretagoiena: Nire aurreneko aldia da. Betidanik gustatu izan zaizkit eskulanak. Batez ere dena birziklatzea gustuko duen pertsona bat naiz. Pandemian bukatzen zitzaidan jaki edo edariren bat zuen ontziren bat eta segituan etortzen zitzaidan burura zerbait egitea, lepoko bat hautsi eta pieza horiekin zerbait egitea. Azken aldian gustura nabil pieza edo forma desberdinetako botilak apaintzen, makrame teknikarekin. Niretzat argiak esanahi handia du, oso positiboa da, indarra ematen dit. Botila askori jarritzen diot argia. Gauean ilunta-

sunean argi pittin bat piztuta izan nahi baduzu egokia da.

Aipatu moduan, birziklatutako materiala erabiltzen duzu.

Batzuk pasatzen dizkidate botilak edo nik hemen etxean gatzatzen ditudanekin moldatzen naiz. Orain adibidez beirazko ontziekin nabil. Sagardo edo xanpain botila bat hustutze bazait edota baita beirazko barazkien potoak, ondo garbitu eta beste erabilera baterako apaintzen ditut.

Etixerako egiten dituzu sortze lanok?

Orain arte oparitu egin izan dizkiet maite ditudan senide, lagun edota bizilagunei. Ez nekien zer izen jarri nire

proiektuari eta “maitasunez” izendatzea erabaki dut, maitasun handiz egiten baitituz lanok. Senarrari beti oparitzen nabilela esaten nion eta mordoxka bat egingo nituela erabaki nuen, postu edo taberna batean erakusketa bat jartzeko. Eta hala hasi nintzen.

Zer da azaroaren 1ean erakutsi nahiko zenukeena?

Bigarren bizitza ematea da goela etxean erabiltzen ditugun ontziei edo edozer gauzari. Gustuko dut oso kalera joan eta txakurrarekin buelta bat ematea. Bat-batean ikusten ditut, urteak daramatzat hala, itxura oneko belar batzuk. Hartzen ditut, lehortzen utzi, bere tratamendu txiki bat



Birziklatutako materiala baliatzen du.

egin eta gero ontzietan jartzen ditut. Oso ondo gelditzen dira. Urteak direnez, zein belar geratzen diren ondo geratzen dira lehortuta. Gauza txikiekin gauz oso politak egin daitezke.

Bertso-ibilaldi oparoa, sagastietan barrena

Jakoba Errekondoren gidaritzapean, lagun ugari elkartu ziren igande goizean Txokoalden, sagastien garrantziaz eta arbasoen sekretuez mintzatzeko. Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariak saio txikiak egin zituzten ibilbidean zehar, bidea gozatze aldera.

Etorkizuneko sagastiaren diseinuari buruzko hitzaldia

Gai hau hizpide izango duen ikastaroa antolatu du Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak ostiralean, urriaren 29an, 15:30-18:30 artean Potxoenean. Aitor Etxeandiak gidatuko du. "Biltzeko makinaria, barietateak, mentu-oinak, sagastien formatoak" hartuko dituzte ahotan, besteak beste. Saio honetarako aurrez eta bideotatik eman dezakezue izena: 943 361 114/alkartasuna@usurbil.com



Sagastien kokapena eta arbasoen ohiturak azaldu zituen Jakoba Errekondok ibilbidean zehar: sagastien altuera eta horren eragina, zuhaitzen adina eta abar.

ETORKIZUNEKO SAGASTIAK

"Ostiral honetan Aitor Etxeandiak ikastaroa eskainiko du Potxoenean"

IAT azterketak Alkartasuna Baserritarren Kooperatiban

Azaroaren 5ean, 8:30-14:30 artean, nekazaritza tresnen IAT azterketa egiteko aukera izango da Alkartasuna Usurbilgo Base-

rritarren Kooperatiban. Interesdunek hitzordua Irungo IAT-ra deituta eskatu ahalko dute, 943 62 63 00 telefono zenbakian. Azterketok gero eskudirutan ordaindu beharko dira.

Herri batzarra

Azaroak 6 · 10:00 · Potxoena

- 1) Plan politikoaren aurkezpena Garikoitz Mujikaren eskutik.
- 2) Ur bizen kanalaren inguruko batzar informatiboa



ehbildu
USURBIL

“Txalaparta Eskolaren bidez, herri dinamika sortu nahi dugu”

Jexux Artzeren heriotzarekin eten zen transmisio katea berreskuratzea doa Jexux Artze Kultur Elkarteak, Zumarte Musika Eskolarekin eta Usurbilgo Udalarekin elkarlanean azaroan irekiko duten Txalaparta Eskolaren bidez. Izen emateko bideok dituzue: txalapartairakasle@gmail.com / 695 716 878. Klaseak emango dituen irakasle Sergio Lamuedraren eta Jexux Artze Kultur Elkarteko kide Iñigo Etxanizekin bildu da NOAAU!

NOAAU! Txalaparta Eskola zabaltzeko zarete. Herritar orori zuzendua dago?

Sergio Lamuedra: Bai, ez da alde zuzena ezagutzarik behar. Hernaniarra naiz, Juan Mari Beltranekin ikasi nuen duela 34 bat urte. Bi eskola zeuden Euskal Herri mailan, Hernanikoa Beltranekin eta Usurbilgoa Artzetarrena, aitzindariak izan ziren. Gure artean oso harreman estua eta aberasgarria zegoen, elkarregandik ikasten genuen. Jexux zendu eta hori katea eten zen 2002an. Egitasmo honekin urte askotan egon den etenaldiaren ostean, Usurbilgo historia berreskuratzen ari gara. Horren parte izateak ilusio handia ematen dit. Horren erleboia hartzea oso berezia da niretzat.

Zer helbururekin abiarazi nahi duzue eskola?

Iñigo Etxaniz: Usurbilen txalapartari harrobi dezentekoa egon zen, baina denborarekin desagertzen joan da. Usurbilen txalapartak izandako garrantzia galtzen joan da. Gure asmoa lehenbizi klaseekin hasi eta gero herrira zabaltzea litzateke, Usurbilek txalapartarekin izan duen historia berpiztea.

S. L.: Txalaparta eskola izango da ardatza, bilgunea. Hortik aterako dira proiektu guztiak,



Sergio Lamuedrak eta Iñigo Etxanizek eman dizkigute xehetasun guztiak.

IÑIGO ETXANIZ

“Usurbilen txalapartari harrobi dezentekoa egon zen, baina denborarekin desagertzen joan da. Usurbilek txalapartarekin izan duen historia berpiztea da gure asmoa”

hor izango dute harreman handia txalapartari desberdinek. Eskolatik aterako lirake buruan dugun Txalaparta Eguna, eskoletan lan didaktiko edo zabalkuntza lana egitea... Garai batean Usurbilek zuen izen hori berreskuratzea.

Zer sentitzen duzue txalaparta entzutean?

S. L.: Soinu aldetik ematen dituen aukerak mugagabeak dira. Horregatik ez dago txalaparta estandar bat. Artzetarrak lau ohol erabiltzen hasi ziren, baina egun soinu aldetik erabat anitzak dira, egur mota desberdinak erabiltzen dira, bidioiak iraulita...

Bizipen askori lotutako musika instrumentua dugu.

S. L.: Txalaparta 60. hamarkadan ia erabat desagertuta egotetik ikurrean bilakatu da, Ez Dok Amairu mugimenduaren bidez, Artze eta Beltran anaiak

aritu ziren berreskuratzen. Garapen horren parte bat bizi dut; itzela izan da nola txertatu den herriaren bizitzan. Klaseak ematen ditut, txalapartari bezala badugu gure proiektua, Kimu. Ospakizunetan, kongresuetan, atzerrian ibili naiz. Jendea txundituta geratzen da. Beti euskararekin alderatzen dut. Familia linguistiko desberdinak daude Europan, eta irla batean hori dago euskara. Txalapartarekin gauza bera gertatzen da. Musika egiteko hain modu berezi hau, hemen bakarrik dugu. Harro egon behar gara altxor bat berreskuratzen jakin izan dugulako eta berreskuratze horretan Usurbil eta Hernani aitzindariak izan zirelako.

Nola antolatu duzue ikasturtea?

S. L.: Iaz Zumartek ikastaro bat antolatu zuen. Jexux Artze Kultur Elkarteak kudeaturiko lehen ikasturtea hasiko da musika eskolan. Lankidetzak hitzarmena adostu dugu Zumartekin, udalaren oniritzia dugu. Materiala osatzen joan behar gara. Klaseak normalean talde murriztuentzat ematen ditut. Norbere maila oso kontuan izaten dut. Ahalik eta erraztasun handiena ematen dugu. Txalaparta Eskolaren bidez, herri dinamika sortu nahi dugu.



“Oso belarri ona genuela esaten zigun Jexuxek”

NOAAU! Nola oroitzen duzu Jexux Artzeren ikasle zineteneko garai hura?

Iñigo Etxaniz: Atxegaldeko lokal batean entseatzeko genduen. Oso oroitzapen politak ditut. Gogoan dut ibilaldi bat egin zela Zumaia eta Usurbil artean, bidea txalapartarietako girotua. Ez zen ezagutzen asko txalaparta. Gogoan dut anaia eta biok lehen aldiz plazan jotzen. Irratikoak etorri ziren bihar-munean gu elkarrizketa-terera, gu harrituta.

Jexux izan zenuen irakasle. Nolako zen bere irakasteko modua?

Iñigo Etxaniz: Artzetarrek plazan jo zuten batean harrituta geratu nintzen soinu horrekin. Txalapartarekin jotzen genituen kantak grabatzen zituen, gero entzunarazteko. Oso belarri ona genuela esaten zigun, taldeko txikienak ginen. Jexux hil zenean pixkanaka galtzen joan zen eta guk pena hori genuen. Zarautzen Sergiok ikastaroak ematen zituela ikusi nuenean, klaseetara itzuli nintzen. Sergio ikastaroak beste herri batzuetara zabaltzeko asmotan zela ikusi nuenean, Usurbilera ekartzeko aukera ikusi nuen. Ikusi genuen baita Jexux Artze K.E.-n errelebo beharrean zirela eta, elkarrekin duen garrantzia ikusita, eskola bilgunen honen bidez bultzatzea zela onena ikusi genuen. Egoki ikusi zuten kideek txalapartak izandako garrantzia hori berreskuratzea eta elkarrekin indartzea.

Julen Lertxundi: “Bertako behi arrazen egoera nahiko larria da gaur egun”

Suharra dokumentalaren proiektzioa eskainiko dute azaroaren 6an Sutegin. Udaberrian proiektatzekoa zuten, baina arazo batzuk tarteko, azarora pasatu dute orain. Julen Lertxundi da dokumentala Usurbilen ematearen arduradunetako bat, eta berarekin izan da NOAUA!

NOAUA! Suharra dokumentala Euskal Herrian galtzeko zorian dauden behi arrazei buruzkoa da. Baserri eta landa girotik at dauden pertsonentzat datu hau harrigarria izan daiteke. Zein da egungo bertako behi arrazen egoera?

Julen Lertxundi: Zehazki, egungo bertako behi arrazen egoera nahiko larria da, galtzeko zorian dagoen abelgorri talde bat da. Izenak dioen moduanazienda oso landatarrak dira, hau da, larreko behiak ez, nolabait ikuluratzeko handirik gabe urte guztian zehar gai direnak gure mendietan bazkatzeko. Batik bat, irtenbide nagusi izan dituzte biziraun ahal izateko: alde batetik, animalia hauek espezializatu izan dira Euskal Herriko zezen festa herrikoietan (sokamuturrak, entzierroak, errektortari ikuskizunak,...), hau da beraien suhartasuna bilatu izan da, eta horri esker bizi irauten dute. Beste alde batetik, oso landatarrak izan direnez baserritarrei ahalbidetu izan die pentsu gutxiarekin edo in-



“Suharra dokumentala pertsona orori dago zuzenduta; hiriburuko, herriko zein baserriko jendeari”.

JULEN LERTXUNDI

“Suharra dokumentalaren helburu nagusia gure arbasoen bizitza eta jakituria jasota uztea da”

bertsio oso txikiarekin ganadua mantentzea, baina esan bezala, galtzeko zorian dagoen arraza da ez baitu errentagarritasun ekonomiko nabarmenik.

Euskal Larrabehi eta Zezenzale elkarteek ekoiztutako dokumentala da. Egun jende asko dago zezenketen eta animalia proben aurka. Zezenketen aldeko ikuspuntua zabaldu ala egungo behien egoeraren berri ematea du helburu?

Euskal Larrabehi Elkarte eta Zezenzale Elkarteak, bi elkarte ezberdin dira. Zezenzale Elkarteak Euskal Herriko zezen festa herrikoiak defendatu eta bultzatzeko sortu zen, eta Euskal Larrabehi Elkarte, berriz, bertan parte hartzen duten eta bertako arraza diren larrabehiak ez galtzeko eta haien zabalpena egiteko elkarteak dira. Bi elkarte hauek ez dira sartzen zezenketetan, beraz, hauen lan esparrua da zezen festa herrikoiak egitea, ez zezenketak. Bi gauza ezberdin dira. Bi elkarten artean erabaki dute dokumentala egitea. Helburu nagusia gure arbasoen bizitza eta jakituria jasota uztea izan da. Ikusi dugu gure aiton-amonek bizi izan duten bizimodua desager-

tzera doala. Bizimodu bat non bertako arrazak oso presente zeuden, hala nola, terreñak, betizuak, montxinak, larrabehiak... Arbasoak animalientzat bizi ziren, eta beraien artean bazegoen nolabaiteko harreman pertsonal bat animalia bakoitzarekin. Hau guztia desagertzera doala ikusita, bizimodu hori izan duten pertsonen testigantza eta jakinduria jasoz erabaki genuen dokumental hau egitea. Dokumentalak behi arraza ezberdinen edo horien hazkuntzan lanean aritu diren baserritarren bizimodua kontatzen du, eta nola ez, arraza horien historia, eta gaur egungo egoera. Helburu nagusia ganadua mota hauen berri ematea da gaur egungo gizarteari.

“Guztioi animatzen zaituztet dokumental hau ikustera”

NOAUA! Joan zen udaberriko aurreikusitako proiektzio hau, baina azkenean bertan behera utzi zenuten. Zer dela eta?

Julen Lertxundi: Izatez aurreko proiektzioa egin genuen, baina ez genuen asko zabal-

du eta arazo teknikoak egon zirenez, bigarren aldiz proiektatzea erabaki dugu jende gehiagori zabaldua eta arazo teknikoak konponduta. Beraz, animatzen zaituztet usurbildar guztioi edo irakurle guztioi dokumental hau ikustera

hurbiltzea. Benetan berezia eta polita da.

Proiektzioa Usurbilen eskainiko badute zuri esker da neurri handi batean. Zer da arlo honetatik gehien erakartzen zaituena?

Txikitatik dudana afizio bat da,

animalia hauen bizitza ezagutzera iritsi naiz eta dokumentala egin ondoren, konturatu naiz gizarte guztiak ikusiko balu beste ezagutza eta pentsakera bat izango lukeela animalia hauen inguruan.

“Erabiltzeko urratsak ematen ez baditugu, galbidean jar dezakegu hitanoa”

Hitanoaren erabilera sustatzeko ikastaroa antolatu du Euskara Aholku Taldeak Usurbilgo Udalarekin batera azaroko astearteetan, 18:15-20:00 artean Potxoenean, Etumeta AEK euskaltegiko irakasle Rosa Zubeldiarekin. Matrikulatzeko bideok dituzue; kultura@usurbil.eus / 943 371 999. Udaberrian antolatu zuten estreinakoz. Orduko parte hartzaileetako bat elkarrizketatu du NOAAU!-k.

NOAAU! Zerk animatu zintuen ikastaro honetara?

Karmele Salsamendi Ansa: Koadrilan komentatuta animatu nintzen. Txikitatik izan dugu neskon artean erabiltzeko gogoia baina inguruan eredurik ez. Hitz egin nahian hasten ginen, agian bizpahiru esaldi egiten genituen. Beti iruditu izan zait aberasgarria ikasteko eta mutilak entzun ditudanean hika hitz egiten beti sentitu izan dut inbidia. Nola-baiteko pena neskon artean ez dugulako jaso eta mantendu.

Mutilen artean gehiago entzuten da egun, neskon artean



Hitanoa sustatzeko urte hasieran eginiko ikastaroan eman zuen izena Karmelek. “Saioak arinak dira”, aitortu digu.

KARMELE SALSAMENDI

“Animatu dadila jendea. Herriko jendearekin harremantzeko beste modu bat eskaintzen du gainera”

hainbeste ez. Zer dela eta?

Zergatia ez dakit. Guk ez dugu eredurik jaso. Ni baino gazteagoen artean nesken artean erabiltzeko ohiturarik ez dagoela esango nuke. Gure koadrilan ere mutilen artean erabiltzen dute eta neskon artean ez. Ez da mutilei ere. Neskak ez dugu egiten ez noka eta ez toka.

Emakume helduagoetan, ohi-koagoa zen lehen.

Ama eta ahizpen artean erabiltzen dute bai.

Etena egon da transmisioan.

Etxean esaldi solteren bat bai baina amak ez dit hika hitz egin. Iruditzen zait gure inguruan etxean ez dugula jaso. Lagun baten kasuan badakit alabari ez diela egin, semeak izan balitu agian bai. Agian gaizki ikusia dagoelako edo izan daiteke?

Nolako zen klase egun bat?

Teoria jasotzen genuen eta gero praktika ere bai, gure artean elkarrizketaxoak sortuz eta gero entzunaldiren bat jarrita. Egia esan saioak arinak dira, gustura egon nintzen eta

normalean elkartzen ez zaren herriko jendearekin egoteko aukera ematen dizu.

Erabilgarria izan zitzazun beraz ikastaroa.

Bai. Ikastaroan ere egon ziren egunerokotasunean erabiltzen dutenak ere. Ondo dago baita dakienak nola erabili behar duen ezagutzea. Denontzako iruditzen zait aberasgarria; bai zerotik hasi, etxean entzun nahiz erabiltzen dutez. Beti ikasten da zerbait eta ondo dator hau pixka bat zabaltzea. Erabiltzeko urratsak ematen ez baditugu, galbidean jar dezakegu. Pertsonek gustuko dudana hizkeratik da eta bizirik mantentzeko ahalegin bat egin beharko genukeela iruditzen zait. Animatu dadila jendea. Gainera herriko jendearekin harremantzeko beste modu bat eskaintzen du.

Eta agian harreman berri horietan erabiltzeko aukera?

Erabiltzeko guneak sortzeko aukera bai. Jada udaberriko ikastaroan parte hartu genuen orduz kanpo elkartzeko hitz egiten saiatzen ginen.

“Herritarrak ‘hikaratu’ nahi ditugu”

“Hikaratu, beldurrik gabe!” aldarrinean hitanoaren ezagutza eta erabilera sustatzeko ekintza sorta iragarri du Euskara Aholku Taldeak datozen asteotarako. Horietako bat, aldizkari honetan bertan iragarritako hitanoari buruzko ikastaroa duzue. Baina hitzordu gehiago ere badira, aipatu herri bilgunitik iragarri dutenez. “Hikalagun dinamika sustatzea edo gazteekin lanketa berezia egitea. Horrez gain, Euskararen Egunerako, abenduaren 3rako,



NOAAU!, Etumeta AEK euskaltegia, Udaregi Ikastola, Udala edota hainbat norbanakok osatzen dute Euskararen Aholku Taldea.

egitarau berezia prestatzen ari dira”.

Hikalagun dinamikari dagokionez, Mintzalagunen antze-

koa izango da; “bi figura elkartu nahi dituzte hika moldatzen direnak eta hika aritzeko prest bai baina laguntza behar dutenak”.

Hikalagun izateko izen-ematea zabalik da

Hikalagun izateko izen-ematea zabalik dute; usurbil@ae.k.eus helbidera idatzita edo 607 609 379 telefono zenbakira deituta. Gazteekin ere gaia landu nahi dute tresnak eta baliabideak eskainiz, “pixkanaka, hikaratu daitezten”. Euskararen Egunerako prestatzen ari direnari buruzko xehetasunak aurrerago eskaintzekotan da Euskara Aholku Taldea.

Sendabelarrei buruzko tailerra antolatu dute Santuenean

Sendabelar tailerra antolatu dute Santuenean hilaren 5 eta 12rako, biak ostiralak izaki. Joan zen urtean ere, sendabelarrei buruzko tailerra antolatu zuten elkarteak, eta harrera beroa jaso ondoren, aurten ere proposamena luzatu dute. 17:30ean hasita, bi orduko tailerrak izango dira.

Tailer horietan, belarrak eza gutzen ikasiko dute bertara hurbildu nahi duten auzotarrak. Arbasoen "sekretu txikiak" gogora ekarriko dituzte Leire Lazkanoren gidaritzapean, eta duela hainbat urte ohikoa zen modura, nola erabiltzen diren ere ikasiko dute partehartzaileek.

Sendabelarrak, bigarren tailerra

Azaroak 5 eta 12 (ostirala)

■ Ordua: 17:30, bi ordu egun bakoitzean.

■ Santuenea, 12 elkarteko lokalean.

■ Prezioa: 10 euro bi saioak.

■ Izena emateko bi telefono zenbaki dituzue eskura: 670 027 731 edo 615 715 991.



Ikastaroa azaroaren 5ean hasiko da.

SENDABELARRAK

*Arbasoen
'sekretu txikiak'
gogora ekarriko dituzte
ikastaroan,
Leire Lazkanoren
gidaritzapean*

Trebetasun jolasak, musikaz girotuta

Azaroak 13 larunbata

■ Ordua: 16:00/19:30.

■ Santueneako plazan.

Gabonetako goxogintza tailerra

Azaroak 19 ostirala eta azaroak 26 ostirala

■ Ordua: 17:00/19:00.

■ Santuenea 12an, elkarteko lokalean.

Musika kalean

Azaroak 27 larunbata

■ Ordua: 18:00/20:00.

■ Jubilatuen lokala eta Santuenea K.E.-ko lokalaren aurrealdean, Dj Mendirekin.

Errigoraren otarrak eskatzeko garaia da

Azaroaren 11ra bitarte bideratu daitezke eskaerak NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan. Hiru otar daude aukeran. Bil dutako laguntzaren laurdena bertako euskalgintzara bideratuko dute.

3 otar aukeran

Saski beltza (betikoa):

■ Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila ardoa, me-

lokotoia almibarrean, melokotoi marmelada, tomate frijitua, potxak, teilak, mahats-zukua, piper-mamia, kardua.

■ Prezioa: 55 euro.

Saski berdea (ekologikoa):

■ Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila ardoa, ardo-ozpina, dilista lehorrak, arroza, pasta, barazki-menes- tra, sagar-zukua, teilak.

■ Prezioa: 65 euro.

Saski zuria (berezia):

■ Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila krintza, ardo zuri apartsua, patxarana, pikillo marmelada, txokolatezko zigarretak, patxaran-pastak, polborioak.

■ Prezioa: 75 euro.

Informazioa: errigora.eus

Ziortza Gazte

Elkartea martxan da

DBH1 eta DBH3ko ikasleak aurreko astean hasi ziren elkartzen. Ostiral honetan DBH2 eta DBH4ko ikasleak txanda izango da. Gazteenek 19:00etan izango dute hitzordua, eta zaharrenek 20:30ean. Gogoan izan, aurten saioak Potxoenean izango dira.

Izena eman behar da aurretik

Saioetan parte hartu ahal izateko izena ematea ezinbestekoa izango da. Horretarako, ziortzage@gmail.com helbidera mezu bat bidali behar da atzera izen-emate orria jasotzeko. Ziortza Gazte Elkartearen sare sozialetan ere inprimakia eskuragarri egongo da.

Irisasi BTT-ren

arropa berria

Urriaren 29ra arte eska ditzakezue Irisasi BTT-ren jantzi berriak; maillot-ak, kulotak, jakak, txalekoak... Formulario bat prestatu dute eskaerak kudeatzeko. Facebook-en duten "Irisasi BTT" orrialdean eskura dezakezue esteka.

Futbol partidak

Urriak 30, larunbata

■ 09:00 Infantil neska:

Udarregi Usurbil FT A-Orioko FT

■ 10:15 Infantil mutilak:

Udarregi Usurbil FT A-Euskalduna

■ 12:00 Kadete mutilak:

Usurbil FT A-Sporting de Herrera

■ 15:30 Kadete neska:

Usurbil FT-Tolosa CF

■ 17:45 Gorengoan maila:

Usurbil FT-Billabona KE

Pilota partidak

Urriak 29, ostirala

■ 18:45 etan Usurbilgo frontoian

Infantil 2. maila, Gipuzkoako errendimentuko banakako txapelketa:

Alejo (Pagazpe)-Sukia (Oriu).

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarrren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705.

Alokairuan

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikazko zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentia da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska baten-tzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, mas-

gotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Zerbitzari euskalduna behar dugu Olarrondo jatetxean asteartetik ostiralera, eguerdi-tarako soilik. 626 686 036.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera.

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra.

Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota hau-

rrak zaintzeko. Titulu soziosanitariorekin. 612 433 485.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egin dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsua eta onradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. Deitu telefono zenbaki honetara 602 481 854 edo email bat idatzi helbide honetara: anisieza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordutegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

BESTELAKOAK

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko deitu hona 660845780 edo idatzi email bat hona: bouchrahajar@outlook.com



Zorionak! Urriaren 17an, Santueneko Gure Elkarteko kideek 2020 eta 2021. urteetan 75 urte egin zituzten auzotarrak omendu zituzten bazkari batekin.



Zorionak! Urriak 23an 1955. urteko kintoez ederki pasa zuten Atxegan ospatutako bazkarian. 25 kide elkartu ziren eta egun ederra pasa zuten. Zorionak denei!!!

**Urte askotarako, Ekhi!**

Azaroaren 9an, 12 urte beteko dituzu. Muxu potoloak familiaren partez!! Maite zaitugu.

**Zorionak Victor!**

Urriaren 23an 9 urte egin zenituen! Muxu handi bat Irai, Luken, amona eta gurasoen partez.

Goardiako farmaziak

Osteguna 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 29 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 30 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 31 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 01 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 02 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 03 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Osteguna 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 05 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

Larunbata 06 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 07 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda urria

29 ostirala

- "Sagarrondotik Sagardora" ikastaro zikloa. 15:30-18:30 Potxoenean. Izen-emaitea: 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com
- Presoen eskubideen aldeko elkarretartzea. 20:00etan Mikel Laboa plazan. Deitzaila: Usurbilgo Sare.

30 larunbata

31 igandea

- Ordu aldaketa. Erlojuak neguko ordutegira egokitu beharko dira. Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

Artisautza Azoka bueltan da

Aurten bai, artisauen bilgunea dugun azoka bueltan da. Azaroaren lehenean topatuko ditugu, eguerdi partean Usurbilgo frontoian.

Iaz, garai honetan, Aitzaga elkarteko kideak lan betean ziren baina ez zuten hitzordua ospatzerik izan. Duela urtebete, Covid-19aren hedapena nabarmen hazita zegoen.

Ohi bezala, herriko nahiz Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako artisauen postuek girotuko dute azaroko lehen eguna.



Datorren astelehenean, azaroak 1, artisauen postuekin beteko da Usurbilgo frontoia.

Emakumeen Etxea, irekierara begira

Emakumeen Etxea ireki aurreko antolaketan lanak egiten hasteko bilera deitu du Usurbilgo Udalak azaroaren 3an asteazkena, arratsaldeko 18:00etan Artzabalen.

Adostutakoa gauzatzeko garaia

Iazko udazkenean Elhuyarrekin bideraturiko parte-hartze prozesuan adostutakoa gauzatzen hasiko dira hemendik aurrerako saioetan.

"Psikologia positiboa eguneroko bizitzan"

Gure Pakeak antolaturiko ikastaroa azaroaren 9an 17:30ean aurkeztuko dute Artzabalen. Maria Eugenia Arregi psikologoak bideratuko ditu astean behin eta ordubeteko iraupena izango duten saioak. "Helburua gure eguneroko bizitza modu errazean bideratzen ikastea da, arnasa hobeto hartzea eta erlaxatzea, sendotasun fisiko eta moral handiagoa izateko".

Datozenak

Kafe Tertuliaren itzulera

Usurbilgo neska* gazteak saretzeko taldeak bertso-bazkaria eta triki-potea antolatu ditu azaroaren 13rako:

Azaroak 13, larunbata

- 14:00 Usurbilgo nesken* saretze bertso-bazkaria.
- Bertsolariak: Uxue Alkorta, Libe Goenaga, Lierni Rekondo eta Maddi Aiestaran.
- Gai jartzailea: Olatz Zuazibiskar.
- Sarrera: 12 eurotan, Aitzagan eta Txirristran eskuragarri.
- 18:30 Triki-potea, Ostolaza ahizpekin.
- Antolatzailea: Kafe Tertulia, Usurbilgo neska* gazteen taldea.

Bazkari-kontzertua

Patri jatetxean

Azaroak 13, larunbata

Azaroaren 13rako kontzertu-bazkaria antolatu dute Patri jatetxean. Ainara Ortega kantariak eta Iñaki Salvador pianojoleak girotuko dute bazkari-kontzertua. 14:00etan hasiko da ospakizuna eta txartelak Patrin bertan eros daitezke, 40 euroren truke.

Patri
Patri jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI!
650 31 31 91 USURBIL

ANIZERKIA **Bete ingoiau. Zutani Teatroa**
azaroak 12, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

KONZERTUA **Ruper Ordorika**
azaroak 19, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

KONZERTUA **Eneritz Furyak eta Maite Larburu**
azaroak 13, **LARUNBATA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

DANTZA **Tio Teronen Semeak, Festamentua**
azaroak 20, **LARUNBATA**, 19:00 Mikel Laboa plazan **DOAN**
(Eguraldi txarra bada frontoian)

BINAKAKO BAKARRIZKETA **Luze edo Motz**
azaroak 14, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

KONZERTUA **Don Inorrez**
azaroak 21, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

HITZALDIA **Ixerra Rodriguez. 30 urte mihigintzan**
azaroak 15, **ASTELEHENA**, 19:00 Sutegi **DOAN**

Sarearak: aldeaz aurretik salgai usurbil.kultura.eus plataforman. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sareara bat Noauaiko egoiltzan



noaua



NOAUA/IKO KULTURALDIA 2021

**USURBIL
AZAROA**





ETXEKOA, BERTAKOA

HERRIKOEN ZERBITZUA
BAINA HOBERIK BA AL DAGO?



Atetik sartzen
den bezero
bakoitzak
ematen die
bizia herriko
merkatariari.
Zuek ematen
diozue bizia!

gertuago.eus

